

UROLAKO INDUSTRIALDEA, S.A.

Sozietatearen izena

Urolako Industrialdea, S.A.

IFK

A20118238

Izaera

Sozietate Publikoa.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea 1985eko abenduaren 26an sortu zen eskritura publiko bidez, Zumarragako Industrialdea, S.A. izena zuela, honako honek baimendu ondoren: [373/1985 DEKRETUA, abenduaren 10ekoa, Industriaren Sustapenerako eta Eraldaketarako Baltzua, A.B.-ari Zumarragako Industrialdea, S.A. izeneko Elkartean parte hartzeko baimena emanez](#); geroago, sozietate publikoa bihurtu zen, honako hau dela eta: [24/1990 DEKRETUA, urtarrilaren 30ekoa, «Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, A.B.»-k partaidetza dueneko Baltzu jakin batzuen izaera publikoa deklaratzeko dena](#).

2001eko ekitaldian, Legazpiko Industrialdea, S.A. sozietatearen bat-egitea gertatu zen xurgapen eta likidaziorik gabeko ondorengo iraungitze automatiko bidez, eta hark, oinordetza unibertsalez, bere aktibo eta pasibo guztiak sozietate xurgatzaileari eskualdatu zizkion, Zumarragako Industrialdea, S.A.ri, zeinak geroago Urolako Garaiko Industrialdea, S.A. izena hartu baitzuen, honako honen babesean: [257/2001 DEKRETUA, urriaren 30ekoa, Legazpiko Industrialdea, S.A. sozietate publikoaren ezabapena onartzen duena. Xurgapenaren ondorioa da hori](#).

2012ko maiatzaren 24an, [99/2012 DEKRETUA, maiatzaren 29koa, Urola Erdiko Industrialdea, S.A. sozietate publikoa xurgapen bidez azkentzeko baimena emateko dena](#) delakoaren babesean, Urola Garaiko Industrialdea, S.A.(xurgatzailea) eta Urola Erdiko Industrialdea, S.A. (xurgatua) sozietateen ezohiko batzar nagusietan bi sozietateek xurgapen bidez bat egitea onartu zuten, eta hau erabaki: xurgatutako sozietatea azkentzea, eta haren ondare sozial osoa sozietate xurgatzaileari eskualdatzea; azken horrek, beraz, xurgatutako sozietatearen eskubideak eta betebeharrak bereganatu zituen oinordetza unibertsalaren bidez. Era berean, egungo izena hartzea erabaki zuten: Urolako Industrialdea, S.A.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

JESN

4110 Higiezinaren sustapena.

Sozietatearen helburua

Xedea industria-ekimena eta -inbertsioa bultzatu eta sustatzea da Urolaldean, honako hauek eginez:

- Industriak ezartzeko lur egokia sustatzea urbanistikoki, horretarako hirigintza-egitasmoak eta hirigintza-proiektuak sustatu eta idatziz, birpartzelazioak, konpentsazioa edo hirigintza-arloko legedian aurreikusitako beste edozein aukera erabiliz; bai eta edozein titulupean industriarako hiritartu eta sustatzeko lurra erostearen bidez ere.
- Pabiloi eta eraikin osagarri osatutako industria-guneak eraikitzea, eta haiek kudeatzea titularitatea erabat eskualdatu arte.
- Edozein administrazio-motak egindako desjabetze-jardueren onuradun izatea.

Sailkapena kontabilitate nazionalan


EAEk kontrolatutako sozietate ez-finantzario publikoak.

Kapital soziala

14.806.440 €

Kapital sozialaren osaera

Sprilur, S.A.	% 53,23
Gipuzkoako Foru Aldundia	% 22,24
Azkoitiko Udala	% 8,97
Azpeitiko Udala	% 5,35
Urola eskualdeko beste udal batzuk	% 10,21



Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzea eta ordezkatzea dagokion sozietateko kide anitzeko organoa. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

Mikel Serrano Aperribay jauna	presidentea.
Iñaki Portilla Aranburu jauna	presidenteordea.
Iñigo Ramos Bilbao jauna	idazkaria.
José Martín Goenogo Epelde jauna	idazkariordea.
Mikel Oregi Goñi jauna	
Pedro García Pinedo jauna	
Jesús Unda Irureta jauna	
Juan Carlos Asín Bustamante jauna	
Joseba Amondarain Senperena jauna	

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 55,56

2012ko aurrekontuak

www.euskadi.net

2012ko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

[Ikuskaritza-txostena, 2012ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.](#)

2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	26.942.622 €
Ondare garbia	17.312.172 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	2.041.191 €
Batez besteko langile-kopurua	4

Sozietatearen helbidea

Industrialdea, Bulegoen eraikina - Argixao auzoa 0 postontzia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

Webgunea

www.sprilur.es